



ALKATETZA
ALCALDÍA

DEKRETUA 2021/1592

Ibilgailuak aparkatzeko tokietan, salbuespenez, Basauriko ostalaritza-establezimenduek terrazak jarri ahal izateko ezaugarri eta baldintzak onetsi zituen otsailaren 18ko 90/2021 Alkatetza Dekretuak.

Izan ere, agerikoa denez, ostalaritzan bereziki latza izan da SARS-CoV-2ak eragindako kutsatzeak geldiarazteko botere publikoek hartu behar izan dituzten prebentzio-neurrien eragina. Gauzak horrela, sektoreari laguntzeko abiarazitako arintze-neurriez eta laguntzez gain, alor horretako negozioak jasaten ari ziren inpaktu ekonomikoa ahal zen neurrian leuntzea eta negozioon finantzak suspertzea ahalbidetzen zuten ekimenak sustatu behar ziren. Era berean, gaur egungo inguruabarrak direla eta, oso egokia zen baimena ematea ibilgailuen aparkalekuetan ostalaritza-terrazak instalatzeko, horretarako beharra zegoen eta: sektorea ekonomia-larrialditik hurbil zegoen, eta, horrelakoen aurrean, Alkatetzak beharrezko neurriak hartu ahal ditu, hondamendiaren, ezbehar publikoaren edo arrisku larriaren parekoa izan daitekeen egoera bat arintzeko.

Gauzak horrela, ostalaritza-sektorearen ordezkariak eskabidea aurkeztu diote Udalari, erakundeak bere garaian ezarritako baldintzak berrikus ditzan eta baimen dezan ibilgailuen aparkalekuetan jarritako terrazetan (10,80 m luze eta 1,80 m zabal diren oholtzetan) 1 mahai eta 4 aulki gehiago jarri ahal izatea: 3 mahai eta 12 aulkiren ordez, 4 mahai eta 16 aulki jartzeko.

DECRETO 1592/2021

Por Decreto de la Alcaldía nº 90/2021, de 18 de febrero, se aprobaron las características y condiciones de instalación, de forma excepcional, de terrazas en zonas de estacionamiento de vehículos dirigidas a los establecimientos de hostelería de Basauri y demás extremos relacionados.

Dicha resolución se motivaba, en síntesis, en el hecho notorio que el sector de la hostelería ha sufrido con especial intensidad los efectos de las medidas de prevención que los poderes públicos han debido adoptar para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2. Por ello, que con independencia de otras medidas paliativas y de ayuda al sector, debía procurarse la adopción de cualesquiera otras medidas de apoyo que permitiesen mitigar en lo posible el impacto económico de este tipo de negocios a fin de que puedan recuperar resuello financiero. Asimismo, que en las circunstancias actuales era muy conveniente autorizar la instalación de terrazas en zonas de estacionamiento de vehículos por cuanto se observa existe demanda en dicho sentido; situación próxima a la de emergencia económica y que habilitaba a la Alcaldía para ejercer acciones administrativas adoptando las medidas precisas para paliar situaciones asimilables a catástrofe, infortunios públicos o grave riesgo de los mismos.

Así las cosas, los representantes de los Hosteleros han formulado solicitud al Ayuntamiento para revisar las condiciones impuestas en su día, en el sentido de posibilitar, en las terrazas instaladas en zonas de estacionamiento de vehículos del municipio compuestas por 3 mesas y 12 sillas y con tarimas de longitud 10,80 metros y anchura 1,80 metros, la instalación de una mesa y cuatro sillas más, resultando con ello una terraza de 4 mesas y 16 sillas.



Horren harira, Udal Zerbitzu Teknikoek txostena egin zuten 2021.04.19an, eta, bertan, adierazi zuten 1 mahai eta 4 aulki gehiago baimendu ahal direla —txostenean adierazitako baldintzetan—, posible delako mahaietan (alegia, mahai desberdinetan hurbilen dauden pertsonen artean) 1,5 m-ko derrigorrezko tartea gordetzea —indarreko osasun-araudiak ezarri bezalaxe—.

Hartara, Bozera maileen Batzarreko kideek, gaur egindako bileran, aho batez adierazi dute ados daudela terrazetan 1 mahai eta 4 aulki gehiago jartzeko eskaerarekin (baldin eta Udal Zerbitzu Teknikoen txostenean ezarritako baldintzak betetzen badira).

Horrenbestez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan ezarritako eskumenak baliatuta, zera

XEDATZEN DUT:

LEHENENGOA.- Aldatzea ibilgailuak aparkatzeko tokietan, salbuespenez, Basauriko ostalaritza-estabuzimenduek terrazak jarri ahal izateko ezaugarri eta baldintzak arautu zituen otsailaren 18ko 90/2021 Alkatetza Dekretua, eta testuaren «LEHENENGOA» atalean 12. puntu hau txertatzea:

«12.- Salbuespenez, baimena ematen da ibilgailuen aparkalekuetan jarritako ostalaritza-terrazetako mahai eta aulki kopurua handitzeko eta, aurrerantzean, 4 mahai eta 16 aulki jartzeko, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Terrazaren oholtoa 10,80 m luze eta 1,80 zabal izan beharko da, gutxienez. Txikiagoak diren oholtzetan, ezingo da orain arte baino mahai eta aulki gehiago jarri.

Por informe de los Servicios Técnicos emitido en fecha 19.04.2021 se ha determinado que podría autorizarse la ampliación en 1 mesa y 4 sillas más en las condiciones que en dicho informe se indican al ser posible el mantenimiento de la distancia física de 1,5 m entre mesas, medida entre las personas más próximas de diferentes mesas, preceptiva según la normativa sanitaria vigente.

La Junta de Portavoces celebrada el día de hoy ha expresado por unanimidad su parecer favorable a la ampliación de mesas en las terrazas expresadas, conforme al condicionado señalado en el informe de los servicios técnicos municipales.

En su virtud, en el ejercicio de las competencias establecidas en el art. 21.1, letras k) y m) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local,

DISPONGO:

PRIMERO.- Modificar el Decreto de la Alcaldía nº 90/2021, de 18 de febrero, por el que se aprobaron las características y condiciones de instalación, de forma excepcional, de terrazas en zonas de estacionamiento de vehículos dirigidas a los establecimientos de hostelería de Basauri, en el sentido de añadir un apartado 12 al dispositivo «PRIMERO» de dicha resolución, del siguiente tenor literal:

«12.- Con carácter excepcional, se autoriza la ampliación del número de mesas y sillas en las terrazas sitas en las zonas de estacionamiento de vehículos, de forma que puedan tener 4 mesas y 16 sillas, siempre que cumplan los siguientes requisitos:

a) La tarima deberá tener una longitud mínima de 10,80 metros y una anchura mínima de 1,80 metros, no siendo posible autorizar la ampliación en 1 mesa y 4 sillas más en tarimas de dimensiones inferiores.



b) **Mahaien arteko segurtasun-tartea bermatu beharko da une oro (alegia, mahai desberdinetan hurbilen dauden pertsonen arteko tartea).**

c) **Terrazan jarritako altzariak ezingo dute espaloiraino heldu, ez eta aparkatutako ibilgailuek hartzen duten zatia baino zabalagoak izan ere.**

d) **Establezimendu bakoitzak bere eskabidea aurkeztu beharko du: kasuak banan-banan banan aztertu behar dira, eta bakoitzaren inguruabarrak egiaztatu.**

e) **Indarrean jarraitzen dute 90/2021 Alkatetza Dekretuaren lehenengo ataleko beste puntuetan jasotako gainerako baldintzek (ibilgailuak kentzea, segurtasun-neurriak, erantzukizunpeko aitorpena, funtzionamendu-baldintza teknikoak eta abar)».**

b) Se deberá garantizar en todo momento la distancia de seguridad necesaria entre mesas, medida entre las personas más próximas de las diferentes mesas.

c) Los elementos instalados no deberán invadir en ningún caso la acera, ni superarán la horizontalidad de la línea de vehículos estacionados.

d) Las solicitudes deberán presentarse individualmente, a fin de poder valorar cada caso, así como realizar las comprobaciones pertinentes.

e) Se mantienen en vigor el resto de las condiciones establecidas en los diferentes apartados del dispositivo Primero del mencionado Decreto de la Alcaldía nº 90/2021 (retirada de vehículos, medidas de seguridad, declaración responsable, requisitos técnicos de funcionamiento, etc.)».

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea Hirigintza Atalari, Udaltzaingoari eta Ostalaritza Erresistentzia Basauri ostalaritza-kolektiboari.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau Udalaren webgunean eta tokiko komunikabideetan argitaratzea, mundu guztia jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak eragin ditzan.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau indarrean sartuko da sinatzen den dataren biharamunean.

SEGUNDO.- Dar traslado de esta resolución al Departamento de Urbanismo, a la Policía Local y al colectivo de Hostelería Ostalaritza Erresistentzia Basauri.

TERCERO.- Publicar la presente resolución en la web institucional del Ayuntamiento y en los medios de comunicación local para general conocimiento y efectos.

CUARTO.- Esta resolución entrará en vigor al día siguiente de su firma.

ALKATEA
EL ALCALDE